


ALTZO ▶

Euskal etxearen beharra



Joxe Manuel Odriozolak liburua kaleratu du ▶ 7

Ekimen ugari antolatu ditu Tolosan Gazteria Batzordeak

EKITALDIAK ▶ Gazteen «hutsuneak» bete nahi ditu; hitzaldiak, Paco Eguna eta disko-festa izango dira ▶ 2



Nerea Cereceda teknikariak eta Ixaropena Urkiola zinegotziak aurkeztu zuten egitasmoa. IRATXE ETXEBESTE



DANI GIBELALDE

I. Garagardo Festarako azken ukituak ematen

IBARRA ▶ Bihar hasi eta igandera bitarte iraungo du; jan-edanaz gain, kultur ekitaldi ugari izango dira plazan ▶ 5

VILLABONA ▶

Egun osoko festa Gaztetxean

Mendi irteera, bazkaria, jokoak, afaria eta kontzertuak izango dira 15ean ▶ 4



Gaztebeko kideak. G.AZKUE

ANOETA ▶

Ur Kontsorzioaren gain utziko da kudeaketa ▶ 6

Guretzako, bezeroa da lehena.

407 berria, diseinu indartsu bat. Hatzaparkada emateko prest!!

TOLOSA MOTOR, S.A.
Peugeot kontzesionarioa

San Esteban auzoa, 14 A
20400 TOLOSA (Gipuzkoa)
T. 943 650 337 - F. 943 652 938

407

www.saldias-miguel.com
saldias@saldias-miguel.com

Saldias Miguel
Nº D.G.S.J.1759

ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

KOTXE ASEGUURUAK
- MOTOAK
- ZIKLOMOTOREAK
- ISTRIPU ASEGUURUAK
- BIZITZA ASEGUURUAK
- ETXEBIZITZA ASEGUURUAK
- BAJAK
- ERANTZUKIZUN ZIBILA

- ENPRESAK
- MAILEGIAK
- INBERTSIOAK
- KOMUNITATEAK
- E.P.S.V. (desgrabazio fiskala)
- pentzio planak, jubilatzea...

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa
Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462

GAZTERIA ▶

Askotariko ekimenak antolatu ditu Gazteria Batzordeak uda arte

Gazte-lekua sortu bitarte gaztetxoei «irtenbideak» emateko ahaleaginean dabil; hasteko, III. Paco Eguna eta disko-festa

IRATXE ETXEBESTE

Badarama denbora puska bat Tolosako Udaleko Gazteria Batzordeak Kultura Batzordetik bereizita lanean. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Gaztegunen foroarekin batera ari da, helburu nagusi bat lortzeko: herrian Gazte-leku bat abian jartzea. Etorrizuneko edo epe luzeako proiektua da hori, «go-goeta handia eskatzen duena», eta bitartean, eta «gaztetxoen eta gazteen inguruko kezka badaudenez», ekimen ezberdinak antolatu ditu. Atzo goizean egin zuten Gazteria zinegotzi Itxaropena Urkiolak eta teknikari Nerea Cerecedak ekimenak aurkezteko agerraldia Kultur Etxean.

Gaztetxoei begira herrian dauden «hutsuneak» bete egin behar dira Urkiolaren hitzetan, eta hori egiteko modurik eraginkorrena haiei zuzendutako ekimenak antolatzeko da. Hala, askotariko eskaintzak egin ditu Gazteria Batzordeak udako oporren aurretik geratzen diren hilabeteetarako. Hilaren 22an Tolosa Kup jaia egingo dute gazteek, eta bertan parte hartzen ez duten gaztetxoei ere festarako aukera eman nahi diete: egun horretan bertan, Ferialekuan, disko-festa izango da 22:00etatik gauerdia. Gainera, «baliatze Udalak alkoholik gabeko edariekin barra jartzea».

Bestalde, ekainaren 12an, larunbatez, III. Paco Eguna egingo dute Jurasiko parkean. Goizetik hasita, egun osoko jaialdia izango da eta ekintza ez-

PACO EGUNA

Ekainaren 12an egingo dute Jurasiko parkean III. Paco Eguna: gazteei eta haurrei zuzenduta, ekimen ugari izango da

berdinak izango dituzte aukeran gaztetxoei: rokodromoa, esgrima erakustaldia, bazkaria, *skate park*-a, grafitiak... Txikientzat, berriz, patinen gaineko hockey-a eta mural pintaketa izango dira. Gazteria batzordeko kideek adierazi dutenez, denbora batez errepideak itxiko dituzte, eta «patinekin edo bestelako gurpildun ibilgailuekin zeharkaldia egiteko aukera izango dute gazteek herrian». Gazteguneko eta aisialdi taldeetako ordezkariak ere bertan izango dira egun horretan, eta Udalak herritar guztiei egin die Paco Egunean parte hartzeko gonbitea.

Maiatzaren 25etik ekainaren 3ra gazteei zuzendutako hitzaldiak antolatu dituzte Gazteria batzordekoek. Bi ziklo ezberdinetan sailkatu dituzte solasaldi horiek: bidaiatzeko aukera ezberdinen ingurukoak dira lehen hirurak eta emantzipazioari buruzkoak, besteak. Hala, diru gutxirekin nola bidaiatu daitekeen, atzerrira lanera edo auzolandegietara joan nahi dutenek zer egin behar duten eta Interrailarekin bidaiatzea zer den azalduko dute lehen zikloko hitzaldietan, eta etxebizitzaren, kredituen eta erregimen

zibilen inguruan ariko dira bigarrenengoan. Kultur Etxean izango dira hitzaldi guztiak, 20:00etatik aurrera.

Irtenbideak emateko

Uztailerako ere badu buruan Gazteria batzordeak ekimenik. Oraindik datarik zehaztu ez duten arren, Bartzelonan zabaldu berri duten Forum-era irteera antolatzeko asmoa du, «gazteei bertara joateko aukera eskaintzea garrantzitsua delako». Izen-emate kopuruen arabera antolatu dute, iragarri dutenez, joan-etorrirako autobusa eta aterpetxea. «Ostira-lean herritik atera eta Bartzelonan bi egun egin ondoren, igandean bueltatuko lirarteke izena ematen dutenak».

Udako oporraldien osterako, berriz, asteburuetan Kultur Etxea zabaltzekotan dira Gazteria Batzordekoak: «Garrantzitsua da gaztetxoei aisialdirako irtenbideak ematea, gaur egun ez dutelako Trianguloan egoitea baino aukera gehiagorik». Lehiaketa publiko bidez jarriko du Udalak egitasmoa, eta aurkezten diren proiektuen arabera aztertuko dute ordezkariak Kultur Etxean zer aukera eman. Gazte-lekua sortzeko bidean «garrantzitsua» izan daiteke eskaintza hori Gazteria Batzordeko kideen hitzetan, «gazteek asteburuetarako duten beharri erantzuteko sorburua delako». boletinean azalduko da bi- hartik aurrera deialdia, eta hortaz, interesa dutenek bertatik jaso ahal izango dituzte egitasmoaren nondik norakoak.



Nerea Cereceda eta Itxaropena Urkiola, atzo, Kultur Etxean. I. ETXEBESTE

EGITARAUA ▶

Udaleko Gazteria Batzordeak antolatuta, hitzaldiak izango dira maiatzaren 25etik ekainaren 3ra gazteentzat, 20:00etan, Kultur Etxean.

HITZALDIAK

▶ **1. zikloa:** Bidaiatzeko era ezberdinak.

Maiatzak 25. *Gazte! Nola bidaiatu diru gutxirekin?* Angel Cuervo tolosarrak emango du hitzaldia. Bere esperientziatik abiatuta bidaiatzeko aukerak azalduko ditu diapositiben bitartez: oinez, bizikletaz, piraguaz eta *auto stop*-ez egindakoak. Bidaitzerakoan hartu beharreko neurri buruz ere ariko da tolosarra.

Maiatzak 26. *Atzerrira au pair gisa eta auzolandegietara joateko informazio orokorra.* Lakunza akademiako Cristina Lakunzak eta Ainize Orozek emango dute.

Maiatzak 27. *Travel Bug.* Ibon

Martinez eta Alvaro Muñoz, *La guía esencial de interrail y el viajero independiente* liburuaren egileen eskutik: komunikazioa, ekipajea, diru trukaketa, mediku asistentzia, bidaiaren segurtasuna...

▶ **2. zikloa:** Emantzipazioa.

Ekainak 1. *Etxebizitza.* Angel Uranga Erretengibeleko teknikariaren eskutik: babes ofizialeko etxeak, etxe hutsak, alokairuan eskubideak...

Ekainak 2. *Kreditu eskaeraren inguruko azalpenak.* Javier Bartolome, Banco Atlantico-ko zuzendariaren eskutik: kreditu bat nola eskatu, kreditu bat emateko jartzen dizkiguten baldintzak, kredituen portzentai ezberdinak...

Ekainak 3. *Erregimen zibilak.* Maider Alegria Urkizu abokatuaren eskutik: erregimen zibil ezberdinak eta bakoitzaren abantailak eta desabantailak.

Elduaien Hizkuntza Eskola 2004ko ludoteka

Uztailean Ingelesez ondo pasa nahi baduzu, Zatoz gure akademiarara!!!

DEI EZAZU 943 674 733
TELEFONORA 16:30etik 19:00etara.
epea irekita egongo da maiatzaren 20a arte.

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

XIV ORDUKO IBILALDIA ▶



Martxaren dekalogoia



2000ko XIV Orduko Ibilaldiko parte-hartzaile batzuk, Aralarko bide seinalearen inguruan. TOLOSALDEKO HITZA

Aralarko Adiskideak elkarteak hamar puntuko arautegia osatu du aurtengo XIV Orduko Ibilaldirako

ERREDAKZIOA

Aralarko Adiskideak elkarteak aurtengo XIV Orduko Ibilaldia-
ren dekalogoia jakinarazi du. Hauxek dira arautegiaren hamar puntuak:

1. ARTIKULUA

Ibilbidea. XIV Orduko Ibilaldia —Atenas 2004 Olinpiada Urtea— hilaren 16an egingo da, igandea. Abiapuntua eta helmuga Tolosa izango da —kiroldegia-
ren aurrean eta Berazubi estadioaren barruan, hurrenez hurrenez—. Ibilbidea ondokoa da: Tolosa-Gaztelu-Uli (kontrola), Merku-Gorriti (kontrola), Lekunberri (kontrola), Iribas-San Miguel (kontrola), Guardetxea-Igaratza (kontrola), Amezketeta (kontrola), Alegia-Tolosa.

2. ARTIKULUA

Parte-hartzaileen ardura. Aralarko Adiskideak ez dituzte bere gain hartuko parte hartzen dutenei ibilaldian edo honen ondorioz gerta lekizkieken istripuen ardura. Parte-hartzaile horiek antolatzaileen-gandik inolako indemnitzaziorik jasotzeko uko egiten diote.

3. ARTIKULUA

Irteera txandak. Izena ematean ezarritako ordenaren arabera egingo dira.

4. ARTIKULUA

20 talde minuturo; lehenak,

goizeko bostetan. Minuturo hogeit hamar talde aterako dira ordinarri jarraituz. Lehendabizkoei goizeko bostetan puntu-puntu emango zaie irteera.

5. ARTIKULUA

Gutxieneko eta gehienezko denborak. Saillapenerako kontuan izango diren taldeek ibilbide osoa egin beharko dute. Kontrol-gune ofizial guztietatik talde bakoitzari emandako denboretan igaro beharko dute, kontuan izanda gutxienez eman beharreko denbora hamahiru ordu eta erdikoa

AHOLKUA ▶ JANZKERA

Janzkerari buruz, barruko arropa termikoa erabiltzea da gomendagarria, tenperaturaren arabera mauka edo hanka motzekoa edo luzekoa.

Zira edo anoraka ez dugu ahasitu behar, lehen orduetan berotuko gaitu eta euria egiten badu uraz babestuko gaitu.

Bururako bisera edo painelua eta eguzkiko betaurrekoak ez dute faltatu behar egun eguzkitsua ateratzen bada.

Bastoiak erabiltzea gomendagarria da mendiko bide eta bidezidorretan, batez ere Amezketako jaitsieran, leku aldapatsua delako.

RAMON GARATE ▶ EUSKAL MENDI FEDERAZIOKO KIROL MEDIKUA

dela eta gehienezkoa hamasei ordutakoa.

6. ARTIKULUA

Saillkatutakoentzat, diploma. Saillkatutako ibiltari guztiek diploma jasoko dute, Berazubi iritsi izana adieraziko duena.

7. ARTIKULUA

Mediku-laguntzak eta jan-ediariak. Antolatzaileek mediku-laguntzarako kontrolak jarriko dituzte ibilbide guztian, eta jan-ediariak Gorritin, Lekunberrian, San Miguelen, Igaratzen eta Amezketan.

8. ARTIKULUA

Ibilbidea, markatuta; baina aukerakoa. Ibilbidea markatu egingo dute antolatzaileek; baina ibiltarien aukerakoa izango da egin beharreko kontrol-etatik pasatuz gero.

9. ARTIKULUA

Arazoei, irtenbidea. Aralarko Adiskideak elkarteak sor daituzkeen arazoei irtenbidea ematen saiatuko da, nahiz eta arautegi honetan jasota ez izan.

10. ARTIKULUA

Denboren txartela. Kontrol bakoitzetik igarotzeko gutxienezko eta gehienezko denborak aparteko orrian emango dira, eta izena ematearekin batera banatutako txartelean.

MUSIKA ▶

Barañaingo Musika Eskolako ikasleen saioa

Barañaingo (Nafarroa) Luis Morondo Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute gaur herrian. Tolosako Udal Musika Eskolako (Pablo Gorosabel) areto nagusian izango da emanaldia, arratsaldeko zazpitan hasita. Herritar guztiak gonbidatu dituzte Musika Eskolako kideek saio horretaz gozatzeko.

MERKATARITZA ▶

Jaurlaritzaren diru laguntzak merkatarientzat

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak urtero merkatariei ematen dizkien diru laguntzak argitaratu dituela jakinarazi du Merkataritzarako Laguntza Teknikorako Bulegoak. Diru laguntzak jasotzeko baldintzak eta epeak bete behar dira. Informazio gehiago nahi duten merkatariek 943 16 06 73ra dei dezakete.

XAKEA ▶



Txikiak ere bikain aritzen dira xakean. TOLOSA-IHARRA XAKE ELKARTEA

Eskolarteko Kutxa Txapelketako saioak

Eskolarteko Kutxa Txapelketako beste bi txanda jokatu ziren igandean Beasainen. Bikain aritu zen X. Corredera, A. Alkorta, P. Balerdi eta A. Arrueren taldea: partida guztiak irabazi zituzten, eta sendo jarraitzen dute multzoko lehen postuan. Tolosaldeko beste taldeak, ordea, galdu egin zuten lehenengo txandan, eta lehendabiziko postua utzi behar izan zuten. Bigarren txandan hobeto joan zitzairen, eta J. Mendiak, A. Intxaurren, J. Ezeizak eta I. Berakoetxeak osatutako taldeak 4-0 irabazi zuten. Hala ere, zail izango dute probintziako finalerako saillapen zuzena ematen duen multzoko lehen postua lortzeko. Hirugarren eta azken saioa datorren igandean jokatu da. Bestalde, datorren larunbatean Tolosako partida azkarren txapelketa jokatu da Tolosako Xake Elkartearen egoitzan (Plaza Berria, 1). Jokatu nahi duenak 16:00etan bertara joatea besterik ez du.

AHT ▶

'Abiadura Handiko Trenaz' jardunaldiak

Tolosaldeko AHT Gelditul Elkarlanak antolatuta, *Abiadura Handiko Trenaz* jardunaldien bigarren saioa izango da gaur, 20:00etan. Kultur Etxean. Anoetako AHT Gelditul Elkarlana, Gazteluko Harrobiaren aurkako eta Jaizkibelgo Superportuaren aurkako taldeetako kideek *AHT-
ren eta egitasmo honekin loturik dauden beste proiektu batzuren aurkako borroka-
ren adibideak* izango dituzte hizpide.

IKASTAROA ▶

DYA-rekin, sorosle eta sorospen ikastaroa

Gipuzkoako DYA-k antolatuta, Sorosle eta sorospen ikastaroa izango da hilaren 31tik ekainaren 18ra. Astelehentik ostiralera emango dira saioak, 19:30etik 21:30era, Hirukide-jesuitin ikastetxean (San Frantzisko). Amaieran sorosle titulua lortzeko aukera izango dute ikasleek. 60 euro balio du ikastaroak, eta ikasle kopurua mugatua da. Izen-ematea zabalik da 943 46 46 22 telefono zenbakian.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Egun guztiko festa antolatu du Onddo Gazte Asanbladak

Larunbatean izango da festa Villabonan; mendi irteera, bazkaria, jokoak, afaria eta kontzertuak izango dira



Gazte ugai biltzen da egunero Villabonako Gaztetxean. G. AZKUE

GARAZI AZKUE

Villabonako zenbait gaztek herriko gaztetxea eta gazte asanbladari bultzada emateko asmotan elkartu, eta, ekintzak prestatzen hasi dira herrian.

Berrogeita hamar bat lagun biltzen dira bi astez behin bileratan. Onddo Gazte Asanblada indarberritu dute berriz ere. Adin beretsuko billabonatar gazte ugari biltzen da orain Flemingo eraikinean, eta ekintza ugari antolatzen dituzte bertan; irteerak, asteazkeneko zine-kluba, mus txapelketak, AHTren inguruko mugimenduak eta Gaztetxeen aldeko manifestazioa joateko autobusa ere antolatu dute berriki.

Bertako gazteen esanetan, «Villabonari bizitasun pixka bat eman nahi diogu guztion artean, azken aldiari gazteentzako gauza gutxi baitago».

Larunbatean, beraz, egun guztiko festa prestatu dute gazteek, eta, azken ukituak emateko buru-belarri dabilta aste guztian lanean.

Jai giroa goizean hasiko da. Onddo ingurura mendi irteera egingo dute Villabonatik abiatuta. Han bertan, jokoak antolatu dituzte, bazkaldu aurretik. Ondoren, berriz ere, herrira jaitziko dira festarekin jarraitzeko.

Arratsaldean, antzerkia eta trikipeotea izango dituzte ikusgai bertaraten diren guztiek.

Eta gauean, bertso afaria antolatu dute Gaztetxeko kideek. Gaur izango da afarian izena emateko azken eguna; txartelak Xikerren, Iratzarrek eta Gaztetxean bertan daude salgai.

Jaiarekin jarraitzeko, kontzertuak izango dira, Susmo taldea eta Villabonako beste talde gazte bat bilduko dira beraien musikarekin. Eta festak, Gaztetxean bertan jarraituko du. «Festa polita izango da, jende guztia animatu nahi dugu etortzeko, goizetik hasita», zioten gazteek.

Gogoz hasi dira lanean billabonatar gazteak, eta «politikari» ekintzak antolatzen jarraitu nahi dute.

VILLABONA ▶ KIROLA



Danon Txokoa eta Bibalabirjen larunbateko partidak. G. AZKUE

Futbol aretoko txapelketa finalerdietan da jada

Lau talde daude azken txanpa jokatzeko; finala, maiatzaren 30ean izango da

G. AZKUE

Bukatu dira jada, VI. Olaederra Aretoko Futbol Torneoako final-laurdenak Zortzi taldetik lau sailkatu dira azken txanpa jokatzeko.

Larunbatean izan ziren azken sailkapenak. Iratxo Amaro, Irurako Gazte Asanblada, Sprint Izagirre eta Bibalabirjen taldeak sailkatu dira, hauek izango dira finalerako txartela lortzen saiatuko direnak finalerdietan.

Finalerdiak ere bi bueltara izango dira. Lehenengo partidak larunbat honetan izango dira, eta bueltakoak hurrengo asteburuan.

Partida hauetan, Iratxo Amaro taldeko kideek, Bibalabirjen taldekoen aurka neurtu beharko dituzte indarrak, 15:00etatik aurrera; eta, Irurako Gazte Asanbladako gazteak, Sprint Izagirre taldekoen aurka jokatu dituzte finalerdietako partidak, 16:15ean hasiko da norgehiagoka.

Partida hauetatik, bi talde

sailkatuko dira finalerako, gainerako bi taldeek, hirugarren eta laugarren postua eskuratzeko partidak jokatu dituzte. Azken norgehiagoka hauek, maiatzaren 30ean izango dira, 11:00etan hasita.

Lehenengo postuan gelditzen den taldeak afaria lortuko du Olaederrako tabernan, gainerakoek trofeo bana etxeratuko dute. Eta, txapelketako jokalaririk onenentzat ere izango da saria.

EMAITZAK ▶

OLAEDERRA TORNEOA

► Final-laurdenak.

Joaneokak.

Iratxo Amaro	4 - 1	Odei edari.
Anoeta	2 - 4	Irurako G.A.
Ostaize bar	0 - 7	Sprint Izagi.
Danon Txokoa	0 - 5	Bibalabirjen

Bueltakoak.

Iratxo Amaro	8 - 2	Odei edari.
Anoeta	4 - 7	Irurako G.A.
Ostaize bar	0 - 3	Sprint Izagi.
Danon Txokoa	7 - 5	Bibalabirjen

IRAGARKI LABURRAK ▶



Anoeta. Etxebizitza eta garajeak, eraikuntza berriak, azken aukerak.

Anoeta. 370 m²-ko 3 pabilioiak modulotan salgai, berriak.

Tolosa. Etxe abikia. 180m², lau gela, bainugela eta komuna. Altzariz hornitutako sukaldeak.

Tolosa. Nafarroa etorbidean 140m²ko etxebizitza. Garajea aukeran.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean, garaje ibia salgai. 16m²koa.

Donostia. Rodil zeharkalean 42 m²ko apartamentu berritua, erabat kanpoaldera.

Donostia. Askatasunaren etorbidean 160 m²ko etxebizitza alokairuan, altzariz salgia.

Lizartza. Solairuko 130 m² dituen hiru solairuko baserri berritua.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilio berriak salgai.

Donostia. Elkano kalean 2 etxebizitza salgai, eraberritzeko eraikin altuan.

Irura. 61 m²-ko etxebizitza, lorategiarekin, inbertsiorako bikaina.

Alegia. Berrikuntza behar duen etxebizitza salgai, hirugarren pisua,

garajearekin eta trastelekuarekin hornitua.

Jatetxea Hernialden. Hernialden, beharrezko guztiarekin hornitutako jatetxea; aparkaleku zabalarekin eta sagardotegiarekin uztartu daitekeena da.

Errezil. Baserria salgai, berritua, berogailuduna. 11.000 m² eta fruitu-arbolak ditu.

Aia. Baserria salgai, bi solairuko, bakoitza 250 m²-koa, gustu handiz berritua, 61.000 m²-ko lursailarekin hornitua.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabiloia, erabat garbia, argitsua eta garbiarekin.

Belauntza. 264 m²-ko eta 275 m²-ko pabilio berriak salgai.

Aizarnazabal. 50.000 m²-ko lursaila salgai. Bost urteko 2.000 txakolin mahats.

Matxinbenta. Berritu beharrek lau solairuko etxebizitza.

Legorreta. 1.000 m²-ko pabiloia salgai dago, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko.

BERASTEGI ▶

Zahartzaroko
gaixotasunak
hizpide, bihar
Gaztainondon

Pablo Mendia aditua izango da bihar 17:30etik aurrera jubilatuko elkartearen

D. GIBELALDE

Kutxaren eskutik, bihar *Nola ezagutu zahartzaroko gaixotasunak, eta horiei aurre egiteko moduak* izeneko hitzaldia eskainiko du Pablo Mendia aditua, 17:30etik aurrera Gaztainondo jubilatuko elkartearen. Bertako ardura-dunek adierazi dutenez, urteko kuota ordaintzen ari dira eta horrenbestez, txartela ekartzea beharrezkoa da. Adinekoentzat bereziki, hitzaldi interesgarria izango dela ziurtatu dute.

San Isidroko bazkaria

Larunbat honetan, San Isidro eguna izaki, prozesioa egingo dute berastegiaren eguerdian, udaletxetik San Martin parrokiaraino. Ondoren Gaztainondo elkartearen bazkaltzeko bilduko dira jubilatukoak. Bihar da bazkarirako izena emateko azken eguna; Gaztainondo elkartearen bertan egin daiteke izen-ematea, 9 euro ordainduz, 16:00etatik 19:00etara

LEABURU ▶

Aizkolarietan,
finalerdietatik
at geratu da
Arrospide

D. GIBELALDE

Anjel Arrospide ezin izan zuen Miguel Mindegia menperatu igandean jokaturako Banakako Urrezko Aizkolarien Lehiaketako final-laurdenekoan. Norgehiagoga gogorra jokatu zuten Urduñan, plazaratutako egurrek ez zirelako makalak. Ordu erdi pasatxo aritu ziren lehian, eta azkenean, bien arteko helduena nagusitu zen, Mindegia, alegia. Hiru egurretan Arrospide aurretik aritu zen. Ondoren, Mindegia ipini zen aurretik, eta Arrospide ezin izan zion eutsi.

IBARRA ▶ I. GARAGARDO FESTA

Azken ukituak ematen

Bihar hasita, igandea bitarte egingo da I. Garagardo Festa herrian; ordurako dena prest izateko elkarlanean ari dira hainbat talde



Udaletxearen parean bi karpa jarri dituzte dagoeneko, 500 laguntzako tokiarekin. D. GIBELALDE

DANI GIBELALDE

B adator pitxarra hartu eta jai giroan murgiltzeko garaia. Bihar bertan hasiko da Garagardo Festa, eta ezerk hutsik ez egiteko azken ukituak ematen ari dira antolatzaileak. Asteburuan bi karpa asko ari dira prestakizun lanean. Festa egunetan herrira hurbilduko den jendetzari aurre egiteko herritar askoren laguntza ezinbestekoa da. Hala, igandea bitarte, 200 lagunetik gora izango dira gogor lanean. Kultur ekitaldi desberdinek ere kolorea emango diote festari. Bihar, esaterako, maila

Udaletxearen alboan daudden bi karpetan 500 lagunentzako izango da jateko tokia; atzo udaletxe parean egokitzen hasi zirenak 30 metroko luzera izango du, eta bertan zerbitzatu dituzte edariak.

JON IRAOLA ▶ IMITATZAILEA

«Jende motaren arabera pertsonai batzuek barre gehiago eragiten dute»

Rechace imitaciones ikuskituzun umoretsua eskainiko dute bihar Jon Iraola ibartarrak eta Mikel Pagadizabal billabonatarrak karpan, 21:30ean. Esketxak eta elkarren arteko elkarriketa laburrez osatutako saioan, pertsonai pila bat imitatzen jardugo dute, 75 inguru. Gaur arratsaldean Joseina Etxeberriaren Euskadi Gazteako irratisaioan ariko dira. Iraolarekin solasean aritu da HITZA.

Nondi k dator kizu pertsonaia ospetsuak imitatzeko zaletasuna?

Betidanik gustatu zait. Telebistan modan jarri zen jendea imitatzea, eta niri ere nahiko erraz ateratzen zitzaidala ikusi nuen. Pagadirekin, zerrenda bat dugu 100dik gora pertsonaiekin, eta handik aukeraketa bat egiten dugu.

Saio arrakastatsua da.

Hori dirudi. Lau saio egin ditu-

handiko bi imitatzaile ariko dira, Iraola eta Pagadi.

Talde antolatzaileak honakoak dira: Haitzetanraju mendi taldea, Denak F.S. areto futbol, Ibarrako Gazte Asanblada, Ibarrako Zikloturista Taldea, Alur dantza taldea, Ibarrako Gazte-txea futbol 7, *Eneko Arizaren* lagunak, Subegi elkarte, eta Ibarrako motozaleak. Laguntzaileei dagokionez, Hauspoa, herritar bolondresak, Udala, tabernariak, denda desberdinak... TOLOSALDEKO HITZAREN batesa ere jaso dute.

GARAGARDO FESTA ▶

ORDUTEGIA

Osteguna eta igandea.
▶ 18:00etatik 00:00etara.
Ostirala eta larunbata.
▶ 18:00etatik 01:00etara.

KULTUR EKITALDIK

Osteguna.
▶ **21:30.** Iraola eta Pagadiren show-a karpan.
Ostirala.
▶ **Arratsaldean zehar.** Eskualdeko txalapartarien eskutik, Txalaparta Festa.
Larunbata eta igandea.
▶ **18:30.** Haur jolasak.
Egunero.
▶ **Musika.** Herriko DJ-en eskutik, musika bikaina izango da giroa alaitzeko.

JAN-EDANA

Edariak.
▶ **Garagardoa.** Inportaziozko 17 garagardo zerbitzatu dira; Euskal Herriko bakarra Eki izango da.
▶ Ura.
▶ Freskagarriak.
▶ **Prezioak.** Pitxarrak euro bat; garagardo arruntak 2,5 eta bereziak 3. Urak 1, eta freskagarriak 1,5.

Janariak.

▶ **Sarrerakoak.** Frankfurt saltxita, Bratwurst saltxita, bertako saltxita, Ibarrako piparrak, eta txorizo egosia.
▶ **Bigarren platera.** Ukondoa.
▶ **Postreak.** Helatua, gazta eta irasagarra, eta euskal pastela.
Besteak.
▶ Patatak.

ZOZKETA

Bidaia.
▶ **Pitxarra erosiz.** Garagardo Festa, Lautrek bidaiek-ekin batera, maiatzaren 16ko ONCE-ko azken hiru zenbakiekin, bidai eder bat zozketatuko du (epea hilaibeteko izango da).

SENDI EKINTZA *taberna*
pintxo beroak eta ogitartekoak
GARAGARDO AZOKAN ZUEKIN
San Bartolome, 5 • Ibarra • Tel.: 943 67 57 28

KARLATZ
Garagardotegia
Euskal-Herria, 6
Tel. 943 67 56 36
ondo pasa
garagardo azokan
20400 IBARRA
(Guipuzkoa)

ANOETA ▶ UDALA

Ur Konsortzioaren gain utziko du Udalak uraren kudeakea

Solkorre eta Idiakaitz kaleen arteko pasabideari Igarabide izena emango zaio


BIANDITZ IRAOLA

Anoetako Udalak plenoa izan zuen joan den astean, eta hainbat puntu onartu ziren bertan. Lehenik eta behin aurtengo martxoaren 16ko aktak onartu ziren, alkatetzaren 84tik 169rako dekretuen berri eman zen, eta biztanleen udal errol-daren zuzenketa onartu zen, aurtengo urtarrilaren 1eko dataz.

Honen arabera 1.377 biztanle zituen Anoetak urte hasieran, eta horietatik 505 gizonekoak dira, eta 872 emakumeak.

Plenoaren laugarren puntuan Etxe Alai, Gure Ametsa eta Mendigibel etxeei kale zenbakiak ematea adostu zuten, eta solkorre eta Idiakaitz kaleak lotzen dituen pasealeku berriari izena ematea erabaki zen.

Hemendik aurrera Gure Ametsa eta Mendigibel Isasti kalean izango dira, eta 4 eta 5



Fidel Azpiroz alkatea. BIANDITZ IRAOLA

zenbakiak izango dituzte, hurrenez-hurren. Etxe Alai, berriz, San Juan kalean sartzea adostu zen.

Solkorre eta Idiakaitz kaleak lotzen dituen pasabideari, berriz, Igarabide izena ematea adostu zen. Erabaki hau hartzeko toponimian oinarritu da Udala, izan ere inguru horietan izen bereko baserri bat bazen, eta egoki iruditu zaie lekuko izenei eustea.

Bosgarren puntuak hartu zuen batzarraren denbora handiena. Bertan herriaren uraren kudeaketa aurrerantzean nola egin behar den eztabaidatu zen. Gipuzkoako Ur Partzuergoak kalitateari buruzko analisiak bere gain hartuak zituen. Anoetako Udalak tasak, kontsumoaren kontaketa, saneamendua eta estolderiaren ardura zuen. Orain kalitate analisiak ere bere kontura egin beharko ditu Udalak.

Legez euren gain jarritako eginbehar berri horiei aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen laborategi zerbitzu bat kontratatzea erabaki zen. Bi aukera daude eztabaidagai, ordea. Alde batetik Ur Konsortzioak abonatuaren kudeaketa egin dezake, eta Udalak saneamendu eta mantentzen dituen lanak bere gain hartu.

Bestetik zerbitzu integrala eskatu daiteke. Lehen kasuan Udalak 3.000 euro aurreztuko lituzke, eta bigarrenengoan 10.000tik gora, gaur egun zerbitzu hori bera ematen duten udaletzeko hainbat langilek jasotzen dutenaren zati bat.

ENHAK ere izan zuen lekukur plenoan, eta Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren erabakia jakinarazi zuten. Honen arabera, Udalek ez dute kompetentziarik nazionalitate auzietan. Udalak helegitea jartzeko aukera badu, baina ez duela merezi uste du, eta beraz, auzia bukatutzat ematen dute.

Bukatzeke Anjel Berrueta eta Kontxi Sanchizen heriotzei buruzko mozioa onartu zen. Idazki horretan indarkeria oro gaitzetsi zuten, Euskal Herria eta Irakerako irtenbide demokratikoa eskatu zuten, eta elkarriketaren aldeko konpromisoa agertu.

ANOETA ▶ JAIK

Jaietan laguntzeko langileak behar dira

Buruhandi eta erraldoiekin atera eta aguazilari laguntzeko behar da jendea

B. IRAOLA

Festak geroz eta gertuago daude, eta egunak joan ahala geroz eta xehetasun gehiago lotzen hasi dira Udalean. Batzuk festa egiteko, beste batzuk lana egitea derrigorrezkoa da, ordea, eta egun horietarako langile bila ari da Anoetako Udala.

Bi lan ezberdinetan aritzeko aukera dago. Alde batetik aguazilari laguntzeko jendea behar da, eta bestetik buruhandi eta erraldoiak eramateko.

Aguazilari ekitaldietarako eserlekuak eta hesiak jartzen, kioskoa montatzen, kaleak garbitzen eta antzeko lanetan lagundu beharko zaio. Buruhandi eta erraldoiek kalejiran atera beharko dute, ordea.

Bi lan hauetarako izena eman nahi dutenek bi epe dituzte. Buruhandi edo erraldoiekin ibiltzeko datorren ostirala dute azken eguna izena emateko. Aguazilari laguntzeko, astebete gehiago izango dute. Herritarrek lehentasuna izango dute, baina kanpotarek ere eman dezakete izena.



Eraikuntzako langileak Trianguloan

TOLOSA/GREBA ▶ Eraikuntzako langileek kontzentrazio bat egin zuten atzo eguerdian Trianguloan. Grebak bigarren eguna izan zuen atzokoa, eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuen hitzetan luze joko du oraindik. Hain

zuzen lau sindikatu hauek deitu zuten atzoko elkarretaratzea, baina beste hainbat langile ere bertaratu zen. Denera ia 100 lagun elkaratu ziren. Asteartero egingo dituzte kontzentrazioak, irtenbida bilatu arte. B. IRAOLA

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

JOXE MANUEL ODRIOZOLA ▶ IRAKASLEA ETA PENTSALARIA

«Euskararen sua piztuta egoteko euskal etxea behar da»

‘Euskalgintzaren lekukoak’ liburua kaleratu berri du Joxe Manuel Odrizola altzotarrak; lekukoez gain, bederatzi hausnarketa ere jaso ditu

OLAIA ESKITXABEL

Elkar argitaletxeak argitaratu du Joxe Manuel Odrizolaren seigarren lana: *Euskalgintzaren lekukoak*. Liburua idazteko urte eta erdi eman du lanean. Bertan, euskalgintzaren nondik norakoak jaso ditu altzotarrak; 450 lekuko aurki daitezke liburuan. Euskaltzaleen, euskalarien eta euskararen aurkarien iritziak jaso ditu, besteak beste.

Nondik sortu zitzaizun liburua idazteko ideia?

Liburu honek badu aurrekariarik; idatzi nuen azken lanerako, *Euskal intelligentsiaren ideologia zantzuak* libururako, alegia, hainbat euskaltzalek gai desberdinen inguruan zuten iritzia jaso nuen. Lana amaitu ondoren, euskalgintzaren inguruan eskuratu nuen materiala asko sobratu zitzaidan. Materiale horretatik abiatuz euskalgintzaren nondik norakoak jaso ditut liburu honetan. **Zein informazio iturrietara jo duzu?**

Azken hogei urteetan argitaratutako testuak jaso ditut; liburuetatik, aldizkarietatik, egunkarietatik... hartu ditut batzuen



JOXEMI SAIZAR

eta besteen iritziak; entresakak egiteko ohitura daukat.

Liburuaren tituluak ondo laburbiltzen duen bezala, euskalgintzaren inguruko lekuko

ugari jaso dituzu. Zein helburrekin?

Politika eta kulturaren arteko dialektika azaldu nahi nuen; euskaltzale askok euskal kul-

tura eta hizkuntza bera identitate nazionaletik bereizita dagoela pentsatzen dute; ni ez nago ados. Euskararen sua piztuta egoteko euskal etxea izan behar da. Liburuaren gai nagusia nazio-estatuak eragindako etnozidua edota barne kolonizazioa da; euskaldunei ere antzeko zerbait gertatu zaigu. Eta euskaltzaleen iritziez gain, euskararen aurkari diren hainbat enak ere jaso ditut liburuan.

Liburuaren azken atalean hainbat hausnarketa biltzen dituzu.

Liburuan jaso ditudan ondorioak eta ditudan gogoetak euskaltzaleei zor dizkiet. Euskalgintzaren aldeko borroka euskal nazio eraikuntzaren ardatza izan behar da; hori abiapuntutzat hartzen dituzten estrategia politikoak gauzatzen ez badira, euskalduna harrotz sentituko da bere herrian.

Zer nolako harrera izan du liburua?

Euskararen militanteek irakurriko dutela pentsatzen dut; hala ere, gure herrian ez da kritikarik egiten; aktibismoa nagusitzen da. Kritikaren premian gaude.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegia-Altzo-Amezketabaltzisketa-Albztur. Osasun zentroa: 943 65 32 12

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etxea: 67 24 11

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Orendain. Medikua: 65 55 95

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdiak:

46 11 11

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Iurramendi egotza: 67 03 25

▶ DYA: 943 67 25 36

▶ Gurutze gorria: 943 67 48 88

▶ Ertzaintza: 943 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerbitzuen

mankomunitatea: 69 39 30

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK (Tolosa):

67 12 14

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Quetglas, M.A, Euskal Herria, 46, (Ibarra). 67 32 74

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetaldea. 687 41 01 18.

anoetaldea@tolosaldeko hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

ALEGIA ▶ KIROLA

Ugaitz Renobales irabazle Sopelako txapelketan Olazabali irabazi ondoren

Jende ugari joan zen Aurrera-Saiatz taldeko pilotaria animatzera

O.ESKITXABEL

Jubeniletan Sopelako txapelketako finalera iritsi zen Ugaitz Renobales alegiarrak; aurrez aurre Mikel Olazabal leitzararren aurka jokatu zuen igandean Aurrera-Saiatz taldeko pilotariak. Maila altuko pilotariak biak: «Finalera iristeko pilotari bikain ugari atzean uztea lortu dute: Apezetxea, Iza, Etxeberria eta Urdamiz, besteak beste», azaldu du Luis Galarraga entrenatzaileak.

Ordu eta laurdenero iraupea izan zuen partidak: «Iraupeak partidaren gogortasuna



Txapela eta kopa erakusten. HITZA

isladatzen du», dio Galarragak. 9-4 eta 20-18 galtzen joan arren, 22ra bitarteko tantoak jarraian egin ondoren garaipena lortu zuen alegiarrak.

Tentsio handia somatzen zen bi pilotariengan: «Urduritasunaren erruz, ez zuten ahal zuten bezainbeste eman», azaldu du Galarragak; hala ere, «partida bikaina eta bizia izan zen».

Jende ugari gerturatu zen Renobales animatzera: senideak, Baliarraingo lagunak, taldekideak... Pilotariak ezezik bere amonak ere eskainitako laguntza eskertu nahi die Sopelara joan ziren guztiei.

ABALTZISKETA ▶

Meza eta bazkaria, San Isidro eguna ospatzeko

O.ESKITXABEL

San Isidro eguna izango da larunbatean, maiatzaren 15ean; egun horren aitzakipean, meza eta bazkaria antolatu dituzte baserriarrek. Meza, San Joan Deunaren elizan izango da 12:30ean; ondoren, 13:30ak aldera, bazkaria egingo dute Abaltzisketako Estanko tabernan. Bazkarira joan nahi dutenek tabernan bertan eman behar dute izena; horretarako azken eguna gaur izango da. Bertako telefono zenbakira deituz ere eman dezakete izena: 943 65 32 83.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Iurramendi ibiltokian bizitza bakarreko etxebizitza salgai. hiru solairu, garajea, bi terraza eta bi jardin. Interesatuek deitu: 667 98 69 16.

LANA

Etxeko lanak. Emakume bat behar dugu etxeko lanak eta haur bat zaintzeko. Telf: 943 67 58 95 (19:00-21:00 bitartean).

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aitzondo. Olio eta hondakin arrisksuen bilketa. 9:00etatik 10:00etara Zizurkilgo Pasusen, 10:30etik 11:00etara Zizurkil goian eta 11:15etik 11:45era Adunan.
Elduain. San Isidro eguneko bazkarirako txartelak salgai udaletxean eta kontzejuan.
Tolosa. Udal Musika Eskolako aurrematrikula zabalik dago 10:00etatik 13:00etara.

ERAKUSKETAK

Alegia. Alejandro Gonzalezen margoak ikusgai Jubilatu Elkartearen olioak eta akrilikoak.
Hernialde. Olivia Sanchezen akuarelak Ostatuan.
Ibarra. Nazio Mailako III. Pegatina Mostra Gaztetxean 19:00etatik 21:30era
Tolosa. Anjel Cuerdoren argazki

erakusketa Aranburu Jauregian ekainaren 12a bitarte.
Tolosa. Javier Sotaren margolanak Lanbroa tabernan.
Tolosa. Maribi Iparragirrenen pirograbatutako Saikin tabernan.
Tolosa. Kubako haurren marrazki erakusketa gaurtik hilaren 14ra Kultur Etxean.
Tolosa. Manuel Arretxeren margolanak Sorron dendan.

HITZALDIAK

Berrobi. Gure seme-alaben autonomia eta autoestima. Garbiñe Merinoren eskutik liburutegian 17:30ean.
Ikaztegieta. Autoestimaren garrantzia titulupean hitzaldia eskainiko du Xabier Arrazolak.
Tolosa. AHT eta egitasmo honekin loturik dauden beste proiektu batzuren aurkako borrokaren adibideak hitzaldia izango da Kultur Etxean 20:00etan. Partaideak: Anoetako AHT Gelditu!

Elkarlana eta Gazteluko harrobiaren eta Jaizkibelgo superportuaren aurkako kideak.
Tolosa. Erlantz Urtasun historialariak *Nafarroa osoa* hitzaldia eskainiko du 20:00etan udaletxeko areto nagusian. Ondoren Nabarralde proiektua aurkeztuko da.
Villabona. Europako hauteskunderi buruzko hitzaldia, Ezker abertzaleak antolatuta. Gurean 20:00etan.

KIROLAK

Bidanía. HITZA Txapelketa (kadeteak). 19:00etan Zabala Yeregiren aurka, Ropon Gutierrezen aurka, Idoate Goikoetxearen aurka eta Villaro Madariagaren aurka.

ZINEMA

Alegia. Paul Thomas Anderson zuzendariaren *Embrigado de amor* Gaztetxean 21:30ean.



Izaskungo meza goizero

TOLOSALDEA ▶ Urtero bezala, maiatza osoan zehar, goizero 6:45ean meza izaten da Izaskungo ermitan —igandeetan 9:00etan eta 11:00etan—. Egunero 110-120 lagun joaten dira, gehienbat Tolosa eta Ibarratik. J. SAIZAR

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK

Xanti eta Rosi (Bedaio). 25 urte elkarrekin maitasunez gainezka. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Antonio Sanchez Cabanillas (Ibarra). Zorionak osaba Paboren partetik.



URTE ASKOAN

Jon Zubeldia Altuna (Amezket). Gaur 5 urte. Zorionak aitaboi, amaboi eta batez ere Garaziren partetik.



URTE ASKOAN

Josu Tolosa Erroondosoro. Gaur urtebete. Zorionak ebekoen partetik.



ZORIONAK

Txindokiko erreginari. Muxu handi bat

HITZA,

zorion agurren tarte

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

Tolosaldeko HITZAren elkarlanean

Gure harpidedun artean ILEAPAINDEGIKO ZERBITZU OSOA, ILEAREN TRATAMENDURAKO BI PRODUKTU eta SOLARIUM-erako 10 SAIOKO BONOAZ zozketatuko ditugu

honekin_estilistak@hotmail.com

Pintor Lekuona, 2
 20400 TOLOSA
 Tel.: 943 65 24 30

Egin zaitez harpidedun!